

2.- MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Balio proposamenak kontuan hartuta, 2-12 tarteko umeak duten helduetara (aitona amonak, gurasoak, osaba izebak, tutore legalak...) zuzenduko dugula erabaki dugu. Heldu hauentzat, ulergarria eta erraza izango da, eta noski, umeentzat baita.

Hasteko, eta gure konpetentzia merkatura ateratzeko, Euskal Herri mailan zabalduko dugu. Enpresa txiki batetik hastea erabaki dugu, horregatik gure lehen gonbita Euskal Herri mailan izango da, aurrerago estatu mailara irekiz. Badakigu erabaki hau murriztuko gaituela hasiera batean, baina gure ideian daukagun konfidantza dela medio, badakigu urrun ailegatuko garela.

Adin guztietara zabaltzeko aukera ere izango dugu, baina hori etorkizun urrun batean izango zen, emaitzen eta eskaeren arabera.

